

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 419/2019 Erabakia, ekainaren 25ekoa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura diharduten langileen oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak ehuneko 2,25 igotzeari, 2018ko ekitaldian ezarritakoekin alderatuz**

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateratua onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, haiek garatzen dituzten hainbat arauk, eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarrizko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekreturen bidez, sektore publikoko ordainsariekin lotutako presako neurriak onetsi ziren.

Errege lege dekretu horretan, zioen azalpenean, adierazten da ezen Konstituzioko 134.4 artikulua aplikatuz 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek automatikoko luzatzeak berekin dakarrela sektore publikoko langileen ordainsariak handitu ezin izatea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 3. artikuluko bigarren apartatuan honako hau xedatzen da:

“2019an, sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsariak ezingo dira handitu oro har ehuneko 2,25 baino gehiago, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneotasunez jokatzeko, hala langile kopuruari nola haien antzinasunari dagokionez”

Lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2.1. artikulua honako hau xedatzen du:

“2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean ehuneko 2,25 gehituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura dauden eta lan-kontratukoak ez diren langileen urteko ordainsari osoak, baita lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoek, behin-behineko langileen eta zuzendaritzako langileen ordainsariak ere”

2.1. artikulua garatzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman da Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 26ko 18/2019 Ebazpena, zeinean zehazten baita zenbat den urtean funtzionario lanpostu bakoitzeko mailari dagokion destino osagarria.

Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretuaren 7. artikulua xedatzen ditu Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena 2019ko ekitaldian aplikatzeko irizpideak:

“Langileen kudeaketaren arloan, indarrean jarraituko dute, aplikagarriak diren heinean, Arabako Lurralde Historikoko 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak V. tituluan jasotako aurreikuspenek”

Foru arau horren 25.1. artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen 2018rako ordainsari osoak foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, 2017ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneousunez jokatzeko, hala langile kopuruari nola haien antzinasunari dagokionez, eta, betiere, Estatuaren oinarritzko legedian ezarritako mugak gainditu gabe”

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lan egiten duten langileen ordainsariak ehuneko 2,25 handitzea 2018. urtekoen aldean.

Bat etorri enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin eta Euskal Funtzio Publikoarenaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen VI. tituluaren xedatutakoarekin, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitaezko negoziazioa.

Bat etorri Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.g) artikuluan xedatutakoarekin, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren zeregina da, erakunde autonomo horren administrazio kontseiluko lehendakari den aldetik, Lehendakaritza Sailarekin koordinatuta, Gobernu Kontseiluari urtero proposatzea erakunde horri atxikitako langileen ordainsari araubidea eta soldata baldintzak aplikatzeko.

Era berean, Gobernu Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, halaxe xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, 178 artikuluan, eta ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzua publikoen kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, 9. artikuluan.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen ordainsari oinarritzko eta osagarriak ehuneko 2,25 handitzea 2018koen aldean, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua*

**M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO**